



## HEZKUNTZA ETA OSASUN SAILEK IKASTETXEETAKO IRAKASLE ETA EZ-IRAKASLEENTZAT TABAKOTIK DESOHITZEKO TERAPIAK ESKEINTZEN DITUZTE 2007-2008 KURTSORAKO

Abenduaren 26ko 28/2005 Legeak, hots, tabakismoaren aurrean neurri sanitarioak hartzen dituenak eta tabakoaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumo eta publizitatea arautzen dituenak, bere 7d artikuluan, **erabat debekatzen du erretzea... ikastetxeetan eta prestakuntza-zentroetan, ikasleen adina eta irakaskuntza-mota kontuan hartu gabe.**

### TABAKOTIK DESOHITZEKO TERAPIAREN ESKAINZA

Osasun Sailak proposatuta eta berau aitziindari dela, ***Tabakotik Desohitzeko Eskaintza berri bat*** formulatu da 2007-2008 kurtsorako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilerko eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako irakasle eta ez-irakasleentzat. Eskaintza horren lerro orokorrak dira:

1. Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilerko eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako irakasle eta ez-irakasle erretzailentzat, baldin eta tabakotik desohitzea nahi badute.
2. Desohitu nahi direnekin kontaktatuko da,
  - beren tabakoarekiko egoera determinatu ondoren,
  - dagokien tratamendua aplikatzea komeni den ikusteko,
  - eta kasu bakoitzerako jarraibide-eredua elaboratzeko.
3. Desohitzeko teknikan adituak diren pertsona-talde baten kargu egongo dira: desohitu nahi direnen aurretiko ebaluazioa, eta ebaluazio horren arabera tratamendua.



4. Tratamendua honela burutuko da:
- nola: 1,5 orduko talde-sesiotan –astean bilera bat (9 ordu guztira)– ordutegia prozesuan parte hartuko dutenek (terapeuta eta pazienteek) erabakiko dutela;
  - non:
    - ikastetxean bertan, baldin eta zentro horretan gutxienez 10 pertsona desohigarri badira
    - erabakiko den lekuan, baldin eta ikastetxe bakoitzeko 10eko kopuru horretara heltzen ez bada, beti ere desohitu nahi dutenentzat erosoen denari jarraituz.
5. Prozesuan parte hartzen dutenentzat tramendu terapeutikoak ez du kosturik izango. Baina neurri farmakologikoak hartu behar izanez gero, kostua tabakotik desohitu nahi den kontura izango litzateke.
6. Desohitze-prozesuan zitaren batera justifikaziorik gabe ez joateak prozesua ezeztatu egingo du. Ezeztapen horren epea urtebetekoa izango da, hau da, prozesua ezin izango da berriz hasi urtebete igaro ez arte.
7. **Otsailaren 8a baino lehen** inskribatu behar da; horretarako, nahikoa da ondoko telefonoetara deitzea, edo bestela postaz mezu bat bidaltzea ondoan diren pertsoneri:

**ARABA**

Irene Lucea Roncal  
Hezkuntza Osasun Zerbitzua  
Vicente Manterola kalea z/g.  
VITORIA-GASTEIZ  
Telef. 945 25 16 33  
[huisaim03@ej-gv.es](mailto:huisaim03@ej-gv.es)

**BIZKAIA**

Ion Ander Irusta Onaindia  
Hezkuntza Osasun Zerbitzua  
Andalucia 1 kalea. Atzekoaldean.  
BILBO  
Telef. 944 0311 95  
[huisb084@ej-gv.es](mailto:huisb084@ej-gv.es)

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA  
OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN  
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

**GIPUZKOA**

***DONOSTIA***

Amaia Gárate Viloin

Hezkuntza Osasun Zerbitzua

Oquendo 16 3º kalea. DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Telef. 943 42 16 22

[huisgsmr@ej-gv.es](mailto:huisgsmr@ej-gv.es)

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA  
OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN  
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

***EIBAR***

Maite Oyarzabal Achotegui  
Hezkuntza Osasun Zerbitzua  
Otaola Etorbidea 29. EIBAR  
Telef. 943 20 84 44 ext 190 -191  
[eibarsm@terra.es](mailto:eibarsm@terra.es)

Lan egiten den zentroko izena, kontaktu-telefonoa eta helbidea adierazi behar dira.

Hamabost eguneko epean, talde desohitzaileko kide batek eskatzaile bakoitzarekin elkarrizketa bat hitzarmendu eta izango du, bakoitzaren egoera ebaluatzeko (tratamendua egokia den ala ez edota zein den tratamendu-mota egokiena ikusteko). Eskabide-kopuruaren arabera, aipatutako epe hori hilabetera arte, ez gehiago, luza daiteke.